



## Hazitoki Topaketak: Zirku jardunaldi Inklusiboa Bermeon

- Igande honetan, irailak 10, 'Hazitoki Topaketak' ekitaldiaren hirugarren edizioari hasiera emango zaio. Berrikuntza bezala Gernika eta Bermeon ospatuko da aurten.
- Ekintzaren helburua, zirkoa egiten duten eta behar bereziak dituzten pertsonen eta Hazitoki elkartearen lana erakustea da.
- Ekitaldiak pertsona guztientzako ekintza egitarau zabal bat izango du

**Irailaren 10ean Bermeoko Erriberan 'Hazitoki Topaketak'** ekitaldiaren hirugarren edizioari hasiera emango zaio. Aurten, behar bereziak dituzten pertsonak zirku mailan egiten duten lana gizarteari erakustea helburu duen ekitaldi hau, berrikuntzekin dator. Garrantzitsuena, 'Hazitoki Topaketak' ekitaldiaren ospakizuna Gernikaz gain (azaroak 12) Bermeon (irailak 10) ere ospatzen dela da.

Edizio honetarako, Hazitoki elkarteak mundu guztiak parte hartu dezakeen zirko ekintza ugariz betetako jardunaldi inklusiboa antolatu du, Hazitoki proiektuaren funtsa kalera ateratzeko asmoarekin.

### **Ekintzaz beteriko egitaraua**

Bermeon ospatuko den 'Hazitoki Topaketak' ekitaldiaren ordutegia hurrengoa izango da: **11:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 19:00etara**. Egun osoan zehar Bermeoko Erriberan hurrengo ekintzak egongo dira besteak beste: Zirko tailer inklusiboa, globoflexia, aurpegi margoketa, eskulanak, zuresku egur jolasak, Zirku erakustaldia...

Ekintzak **doakoak** dira eta **mundu guztiarentzat** zabalik daude. Hau bermatzeko, hainbat monitore espezializatu egongo dira, behar bereziak dituzten eta beharrezana duten pertsonen laguntzeko.



### **Jardunaldi solidarioa**

Aurten ere 'Hazitoki Topaketak' ekitaldiaren helburua bikoitza da: Alde batetik, behar bereziak dituzten pertsonak zirku mailan egiten duten lana gizaritari erakustea eta bestetik, Txitatoki Urdaibai Zirko Eskolan garatzen den 'Hazitoki' proiektuarentzako dirua ateratzea.

Hau posible egiteko, ekitaldian hainbat punto solidario egongo dira. Jasotako dirua proiektuan parte hartzen duten monitoreen soldatak ordaindu eta materiala egokitzeko erabiliko da.

### **Kolaboratzaileak**

'Hazitoki Topaketak' honako udal, enpresa eta entitateei esker izan da posible: **Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte saila), Bermeoko Udala, Muxikako Udala, Laboral Kutxa, Alakrana-Echebestar, Zure Alde, Zirkugintza, Txitatoki Urdaibai Zirko Eskola, Persianas Gernika, Asesoría Aurtenetxe, Algarbi Desatascos, Ese Urdaibai, Tapiceria Crespo, Gernika Garbiketak, Enrique Elguezabal, Zuresku, Ladis Design y Txikaletos**  
Guztioi, eskerrik asko!

### **Hazitoki Proiektua**

Hazitoki Zirkugintza kooperatibak eta Txitatoki Urdaibai Zirko Eskolak sortutako zirko bidezko gizarteratze proiektu bat da. Gaur egun, arte eszenikoetan pertsonen integrazioaren alde lan egiten duen irabazi-asmorik gabeko Hazitoki elkarteak kudeatzen du proiektu hau, jolas eta kultura lengoia konbinatu berriak sortuz, pertsona guztiak, haien gaitasuna edozein dela ere, arte eszenikoetan barneratu eta integratzearen helburuarekin.

Gaur egun, proiektu hau Txitatoki Urdaibai Zirko Eskolan gauzatzen da. Bertan, zirku gizarteratze tresna bezala erabiliz, ikasleen arteko harremanak bultzatzen dituzte, era guztietako pertsonen artean maila desberdinetako harremanak sortuz.

---

### **Informazio gehiago:**

**Nekane Ramirez** - Hazitoki - T.: 676 40 58 78 - [hazitoki@zirkugintza.com](mailto:hazitoki@zirkugintza.com) - [www.txitatoki.com/hazitokitopaketak](http://www.txitatoki.com/hazitokitopaketak)